

Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordearen 2016ko abenduaren 15eko EBAZPENA, 2016-2017 ikasturtean doktore ez diren ikertzaileak prestatzeko doktoretza-aurreko programako beka berriak ebazten dituen.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren 2016ko uztailaren 19ko Aginduak, 2016-2017 ikasturtean doktore ez diren ikertzaileak prestatzeko doktoretza-aurreko programako bekak berritzeko eta laguntza berriak emateko prozesua arautu eta deitu zituen.

Agindu horren 32.artikuluaren arabera, laguntzak ematea edo ukatzea Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordearen ebazpen bakar eta espresuaren bidez gauzatuko da, ebaluazio-batzordearen ebazpen-proposamena aintzat hartuta.

Horregatik guztiagatik, eta kontuan hartuta berariazko aholku batzordeen ebaluazioa eta ebaluazio-batzordeak helarazitako proposamena

EBATZI DUT:

Lehena.- I. eranskinean agertzen diren onuradunei ematea doktore ez diren ikertzaileak prestatzeko doktoretza-aurreko programarako dirulaguntzak 2016-2017 ikasturterako, jaso behar duten ordainsari gordina, ezarpen zentroa eta horiek lan kontratuak finantzatzeko beharreko zenbatekoa adieraziz.

Kontratuak 12 hilabeterako izango dira.

Bigarrena.- II. eranskinean agertzen den ordezkoen zerrenda ezartzea, lerroak, arloak eta lehentasunaren arabera zehaztuz. Hutsuneak gertatuz gero, hauek 32. artikulua zehazten duen bezala beteko dira

Hirugarrena.- III. eranskinean agertzen diren ez onartutako eskatzaileen eskaera zerrenda onartzea, ez onartzearen arrazoiak zehaztuz


Laugarrena.- IV. eranskinean aukeratze-prozesutik kanpo gelditu diren pertsonen zerrenda onartzea, kanpo geratzearen arrazoiak zehaztuz

Bostgarrena.- 2016ko uztailaren 19ko aginduak eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko ekainaren 1eko 14/2011 Legeak xedatutakoaren arabera erabakiko dira dirulaguntza horien zenbatekoa, iraupena, ordaintzeko era eta jasotzeko gainontzeko baldintzak. Ikertzaile onuradun bakoitzak jasoko duen diru-laguntza dagokion eranskinean ageri da.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Interesatuak Hezkuntza sailburuari gorako errekurtsua jarri ahal izango diote administrazio-bideari amaiera ematen ez dion ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, www.euskadi.eus egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko abenduaren 15a


Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordea
ADOLFO MORAIS EZQUERRO